

HEZIREN BATZORDE IRAUKORRA

PARTAIDEAK:

- Aloña, Oihane, Miren, Larraitz, Oier eta Irati

LANDUTAKO GAIA: Proiektuen jarraipena

LUDOTEKAREN INGURUKO HAUSNARKETA

Heziko partaideak eta Guraso Elkarteak haurren beharretara egokitutako eskaintza ezberdinak aztertzen aritu dira.

Eguno egoera aztertuta hausnarketa ondorengo da: egunerokotasunerako beharrea astean behineko maiztasuna egokiagoa eta aproposagoa ikusten da. Bestalde, espazio txikia eta eskaintza adinaren arabera egokitzeko beharra ikusita, adin tarte bakoitzarentzat egun bat egokitzea ikusten da aproposa

Ludotekaren erabilera astelehenetik ostegunera artean, adinaren arabera eskaintza eskaintzea aztertzen ari dira. Horrela, astelehena 0-4 urte arteko haurrek izango lukete Ludoteka erabiltzeko aukera; martitzenetan 5-8 urte artekoek; eguztenetan 5-8 urte eta eguenetan 9-12 artekoek.

Horrez gain, egunerokotasunean arratsalde, haurrak gurasoekin batera egoteko espazio itxi eta bero baten beharra ikusita, aukera ezberdinak aztertzen dira.

HAURREN ASANBLADA

Heziko kideak eskolako zuzendariarekin bildu dira Aste Santu aurretik Haurren Asanbladak eskolako ordutegi barruan egiteko. Proposamena, hilean behin ordu batez Heziko kideak eskolako haurrekin bildu eta Asanblada egiteko baliatuko litzateke momentu hori.

NERABEEN ASANBLADA

Azken Asanbladan 12-16 urte arteko gaztetxo gutxi elkartu ziren. Orokorrean ez dute elkartzeko beharrik ikusten.

FRONTOI AURREKO EREMUAREN BERRANTOLAKETA

Bildutako kolektibo bakoitzaren ordezkariak bere proposamenak aurkeztu ditu guztion artean proposamen bateratu bat adostu dute.

Orokorrean, autobus geltokitik eskolarako bidea egokitzea eta frontoi aurreko eremua haurrentzako berreskuratzea adostu zen.

Momentu honetan proposamena udaleko arkitektoari aurkeztua da eta proiektua diseinatzeko zain daude.

OIENEZ ESKOLARA PROIEKTUA

Eskolarekin harremanetan jarri eskolara joateko haurrek erabiltzen dituzten bideak zeintzuk diren aztertu nahi dituzte. Honekin batera, orain artean eskolak jasotako informazioa bilduko dute.

Bestalde, eskolan bizikletentzako aparkalekua jarri nahi dute